



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

INGURUMENA

ANTZUOLA, BERGARA, LEINTZ-GATZAGA ETA OÑATIKO EKARPEN-GUNE, LARRIALDI-GUNE ETA MINIGUNEETAN SARBIDEAK KONTROLATZEKO ELEMENTUAK HORNITU ETA INSTALATZEKO BALDINTZA-AGIRIA

Data: 2013-02-01

1 - Kontratuaren xedea.....	2
2 – Kontratuaren balio zenbatetsia, aurreikusitako unitate-hornikuntza eta elementuen araberako banaketa.....	2
3 – Hornikuntzaren ezaugarri teknikoak.....	2
3.1 Sarbide-kontrolerako eskaturiko edozein elementuri aplikatzeko alderdi orokorrak.....	3
3.2 Ekarpen-guneko sarbide-kontrola	3
3.3 Larrialdi-guneko sarbide-kontrola.....	5
3.4 Edukiontzietarako sarbide-kontrola.....	6
4 – Proba pilotua.....	8

1 - Kontratuaren xedea

Baldintza Agiri honen arabera formalizatzen den kontratuak ondoren zehaztuko diren guneetan sarbideen kontrola egiteko elementuak (hardware eta software) hornitu eta instalatzea izango du helburu:

1. Baserri-eremuan sorturiko hondakinen bilketarako ekarpen-gunea.
2. Hiri-eremuan sorturiko hondakinen bilketarako larrialdi-gunea.
3. Edukiontzia, batez ere miniguneetan eta ekarpen-guneetan jarriak, baserri-eremuan sorturiko hondakinak biltzeko direnak.

Kontratu hau betetzeko aplikatuko den lurralde-eremua Antzuola, Bergara, Leintz-Gatzaga eta Oñati udalerrietara mugatuko da.

2 – Kontratuaren balio zenbatetsia, aurreikusitako unitate-hornikuntza eta elementuen arabera banaketa

Kontratu honetarako balio zenbatetsia 42.000 €-koa da (BEZ gabe).

Sarbideak kontrolatzeko hornitu eta instalatu beharreko elementuen kopurua honakoa izango da:

Elementuak	Edukiera (l.) /Ezaugarriak	Kopuruak:
Edukiontzirako sarbide-kontrola	120	38
	240	53
	1000	29
Ekarpen-gunerako sarbide-kontrola	Hornidura elektrikoarekin	1
	Hornidura elektrikorik gabe	10
Larrialdi-gunerako sarbide-kontrola	Hornidura elektrikoarekin	5

3 – Hornikuntzaren ezaugarri teknikoak


Ondoren aipatuko dira hornituko diren elementuen ezaugarri teknikoak, baita ere hornikuntza egiteko baldintzak:

3.1 Sarbide-kontrolerako eskaturiko edozein elementuri aplikatzeko alderdi orokorrak


- Eskaturiko sistema guztiak jada instalatuta entregatuko dira.
- Ahal den neurrian, ahalik eta software eta hardware kopururik eta tipologiarik txikiena erabiliko da sarbide-kontrolerako elementuak kudeatzeko. Softwarea euskaraz edo erdaraz erabilgarri izango da.
- Hornituriko elementuek behar hainbateko estankotasun-indize eta babesa behar dute, garbitze-lanetan zuzenean beraien gainera botatako ur-turrusta jasateko.
- Instalaturiko sistemek ez dute mantentze-lan espezializaturik beharko zenbait eragiketetan (erabiltzaileen alta eta bajak, pila edo/eta baterien aldatzea, datu-biltzea eta abar), horrela, lan horiek Mankomunitateko zerbitzuek eurek egin ahal izateko moduan. Horren haritik, aipaturiko lan edo eragiketa horiek egin ahal izateko, kudeatzaile eta mantentze-lanetako langileei beharrezko prestakuntza emango zaie. Prestakuntzarekin batera, funtzionamendu-eskuliburua emango da.
- Positiboki baloratuko da, konkurtsora ateratako elementuak nfc protokoloan ere funtzionatzea.

3.2 Ekarpen-guneko sarbide-kontrola


Sarbideen kontrol hau ekarpen-guneen sarreran egin beharko da; eraikin horiek gutxi gorabehera honako morfologia hau dute:




LUZETAKO EBAKETA




ZEHARKAKO EBAKETA




ALTXAERA NAGUSIA



ALDAMENeko ALTXAERA



ATZEKO ALTXAERA



ALDAMENeko ALTXAERA

Gune horiek honela banaturik daude udalerrietan:

Udalerria	Ekarpen-gunea
Antzuola	EG-San Josepe
Bergara	EG-San Juan-Basalgo
	EG-Angiozar
	EG-Labegaraieta
	EG-Erdigunea
	EG-Gorla
Leintz-Gatzaga	EG-Erdigunea
Oñati	EG-Garagaltza
	EG-Larraña 2-Eteo
	EG-Olabarrieta
	EG-San Pedro

Sarbide-kontrol hau egiteko leku fisikoa sarrerako atearen sarraila izango da, erabiltzaileek atea zabaltzeko ahal izateko aurkeztu beharko duten txartel edo giltza bidez. Atea irekitzea, ahal bada, atean bertan jarrita egongo den irakurgailura giltza edo txartela hurbilduz egingo da.

Gainera sarrailak, sarraila-zilindro arrunta izango du larrialdi baten aurrean erabilgarri izateko.

Erregistraturiko datuen deskarga hari gabeko unitate bidez egingo da, eta hardware hartzaileak, ahal izanez gero, GPRS modulu bat izango du bildutako datuak denbora errealean Mankomunitatearen zerbitzariraino bidaltzeko. Positiboki

baloratuko da datuak jaso eta bidaltzeko sistemaren integrazioa Mankomunitatean bilketak kudeatzeko ezarrita dagoen sistemarekin.

Egindako deskargetatik datozen datuak modu automatikoan eta une berean sartuko dira, Mankomunitateko zerbitzarian dagoen hondakinak kudeatzeko datu basean.

Ekarpen-gune baten (EG-San Josepe) salbuespenarekin, gainerako guztiak ez dute elektrizitate, eta beraz hornikuntza elektrikoa pilaz edo bateriaz elikatutako sistema autonomo baten bidez egingo da. Pila edo/eta bateria aldaketari buruzko mantentzea behar hainbat erraza izango da hondakinen bilketa-zerbitzuko langile batek baliabide sofistikaturik gabe egin ahal izan dezan. Sistemaren xumetasuna baloratuko da.

Hornikuntzan guztiak sartzeko 700 giltza edo txartel sartu behar dira, baita horiek birprogramatu ahal izateko beharrezko software eta hardwarea ere. Positiboki baloratuko da sartzeko txartelak estandar onartuen arabera garatuak egotea eta funtzionatzea.

Sarbide-kontrolak ekarpen-gunean honako baldintza hauek bete beharko ditu:

1. Erabiltzaile bakoitza esparrura zein egun eta ordutan sartu den erregistratuko du, erabiltzailea identifikatuz.
2. Pilak edo/eta bateriak laster agortuko direla ohartaraziz abisumezuak igorriko ditu.

3.3 Larrialdi-guneko sarbide-kontrola

Sarbide-kontrol hau larrialdi-guneen sarreran egingo da, eta ekarpen-guneetakoaren antzeko morfologia aurkeztuko dute.

Gune horiek honela banaturik daude udalerrietan:

Udalerria	Larrialdi-gunea
Antzuola	LG-San Josepe
Bergara	LG-Labegaraiaeta LG-Erdigunea
Oñati	LG-Garagaltza LG-Larraña 2-Eteo

Ekarpen-guneetan ez bezala, hauek guztiek izango dute hornidura elektrikoa datuak jaso eta bidaltzeko elementuak funtzionarazteko, eta hesi fisikoak (sarrailak) irekitzeko.

Larrialdi-gunera sartzeko kontrol-sistema hau honako hauek osatuko dute:

- GPRS modulua edo antzekoa Mankomunitatearen kontrol-gunetik bidalitako datuak jasotzeko, zenbait erabiltzaileri esparrura sartzea baimenduz. Modulu honek datuak (bost digituko zenbakizko kodeak) jasoko ditu eguneko edozein unetan (24 orduetan) urteko egun guztietan (365 egunetan).
- Display zenbakizkoa Mankomunitatearen kontrol-guneak baimendutako kodeak sartzeko. Display hau larrialdi-gunearen kanpoaldean geratuko da instalatuta, atean bertan edo ondoan (adib. atearen laukian).
- Sistemak zuzen funtzionatzeko behar duen software eta hardwarea.

Larrialdi-guneko sarbide-kontrolak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- Erabiltzaileak eskatutakoan kontrol-gunearekin komunikatuko da izan diren sarrerak adierazteko. Software apropos baten bitartez, aukera egongo da filtroak aplikatzeko (adibidez tenporalak), honela, sarbide-kontrolaren unitateak sortutako datu kopurua murriztuz.
- Sartzen utzi beharko die erabiltzaile iraunkorrei. Hauek denboraz iraungitzen ez den kode bat duten erabiltzaileak dira, hondakinen entrega bat egin behar duten bakoitzean kontrol-guneari kodea eskatu beharrik gabe esparruan sartzeko baimena dutenak.
Kode iraunkor hauek garbitasuneko udal-zerbitzuen, hondakin-bilketako zerbitzuen, zenbait dendaren eta abarren artean banatuko dira.
- Kontrol-gunetik datorren sartzeko baimena hartzen denetik aurrera erabiltzaileak 24 ordu izango ditu larrialdi-gunean sartzeko.
- Positiboki baloratuko da sistemak kontuan hartzea sartzeko baimenak berehalakoa ez den data bati erreferentzia egin ahal izatea (datatik 7 egunetaraino).

3.4 Edukiontzietarako sarbide-kontrola

Sarbide-kontrol hau honako hauetan egingo da:

1. Miniguneetan kokaturiko edukiontzietan.

Miniguneak honela banaturik daude udalerrietan:

Udalerria	Ekarpen-gunea
Antzuola	MG-Ibarre MG-San Blas
Bergara	MG-Aranerreka MG-Ubera MG-Candy MG-Elosua MG-Ola MG-Osintxu MG-Mekolalde MG-San Lorentzo MG-San Prudentzio
Leintz-Gatzaga	MG-Begiñarru MG-Arlaban
Oñati	MG-Madalena MG-Arantzazu MG-Araotz MG-Murgia MG-Berezao MG-Jaumendi MG-Larraña MG-Zumeltzegi MG-Lezesarri MG-Soraluze MG-Zubillaga

2. Gai organikoaren edukiontzietan, ekarpen-guneen barruan kokaturik egoten direlarik (ez daude ekarpen-gune guztietan).

Hornikuntzan guneetara sartzeko 800 giltza edo txartel sartu behar dira, baita horiek birprogramatu ahal izateko beharrezko software eta hardwarea ere.

Kontuan izan behar da aukera hau: erabiltzaile batek txartel bera erabiltzea ekarpen-gunera sartzeko eta gai organikoaren edukiontzira sartzeko; beste erabiltzaile batek, ordea, ekarpen-gunera sartzeko bakarrik. Horren haritik, ekarpen-gunera eta edukiontzietara sartzeko kontrolean erabilitako txartelak mota berekoak izango dira.

Beharrezko software eta hardware bidez, Mankomunitateak maisu-giltzak programatu ahal izango ditu edozein ekarpen-gunetara edo/eta edukiontzitara sartzeko aukera emango dutenak.

Edukiontzi bakoitzera sarbide-sistema funtzionarazteko hornidura elektrikoa edukiontziaren sistema elektronikoan bertan integraturiko pila edo bateria bidez egingo da, eta horien mantentze-lana Mankomunitateko langileek egiteko modukoa izango da, sofisticazio bereziko inolako tresnarik gabe ere.

Atal honek ez du edukiontzien hornidurarik izango, baina bai horien gaineko kontrol-elementuen muntatzea, eta hori Mankomunitatearen dependentzietan egin beharko da, proba pilotua amaitu ondoren.

Aukeran dago, esleidunaren etxean egitea muntaketa, betiere azken honek bere kargu hartzen baditu osotutako elementuen garraioak sor ditzakeen kostuak, Mankomunitateak aukeratzen duen punturaino (bere eremu barruan).

Esleidunak, mantenu langileentzat emango duen formazioan, edukiontzientzat elementu elektronikoan muntaia eta desmuntaiari dagokion praktikak egingo dira.

4 – Proba pilotua

Proba pilotu honen helburua da kontratu honen xede diren elementuen funtzionamendu zuzena baliozkotzea, hau da, ekarpen-guneko sarbide-kontrola, larrialdi-guneko sarbide-kontrola eta edukiontzietarako sarbide-kontrola.

Larrialdi-guneko sarbide-kontrolari dagozkion elementuen gainean proba pilotu hau egiteko baldintza Mankomunitatean telefono-komunikazioen sistema berria ezartzea izango da.

Proba pilotua egin ondoren, kontratu honetan hornituriko elementuen gainean doikuntzak egitea beharrezkoa dela ikusten bada, egin egin beharko ditu kontratistak, horrek inolako kostu gehigarriarik ekarri gabe Mankomunitateari.

EGINBIDEA.- Baldintza Agiri hau Mankomunitateko Gobernu Juntak onartu zuen 2013ko otsailaren 21ean egindako bilkuran.

**Arrasaten, 2013ko otsailaren 22an.
IDAZKARIA**